



## Etxarri Aranazko Udala

Kale Nagusia 10 (KP 31820)

udala@etxarriaranatz.eus

www.etxarriaranatz.eus

Tef. 948460004

# ETXARRI ARANAZKO UDALAREN ONDARE-ONDASUN BATEN ENKANTE PUBLIKORAKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

## 01/809 zenbakidun partzela (ARKUETABIDE 10)

### 1.-. XEDEA.-

Plegu honen xedea da Etxarri Aranazko 1. poligonoko 809 partzela esleitzeko baldintza ekonomiko-administratiboak ezartzea. Esleipena enkante publikoaren bidez egingo da, plegu itxiaren prozedura erabiliz. Hona esleipenaren izaera juridikoa:

DESKRIBAPENA: Hiri-lurzorua. Arkuetabide lursaila, 1/809 partzela; LAUREHUN ETA HAMABI ETA HOGEITA SEI METRO (412,26m<sup>2</sup>) hartzen ditu.

Lurzatia "gorputz zehatz" gisa besterentzen da, finka bakoitzaren errealitate fisikoari kalterik egin gabe, Kode Zibilaren 1151. artikulua edukiarekin bat etorriz. Beraz, ez da erreklamaziorik egingo azalera-aldeak handiagoak edo txikiagoak direnean, ez eta eraikuntza garestitzen duten baldintza geologiko, topografiko edo antzekoen ondorioz ere.

Haren lizitazioa NAOn, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da, baita Nafarroako Kontratazio-Atarian ere.

### 2.- PREZIOA

Lizitazioaren oinarritzko prezioa BERROGEITA BOST EUROKOA da (45.000,00 €), zergak kanpo. Hori horrela egin da Udaleko arkitektoak egindako balorazio-txostenean ezarritakoaren arabera (ETX-TZ\_01-809).

Ez da eskaintza txikiagorik onartuko.

### 3.- KONTRATAZIO-ORGANOA.-



Artikulu honetan ezarritakoaren arabera: Nafarroako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikulua, eta udal arkitektoak egindako ondasunaren balorazioa ikusita, besterentzeko Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia behar da, artikulu bereko 2. atalean Alkatetzari aitortutako ahalmenari kalterik egin gabe.

#### **4.- PROZEDURA.-**

Ondasuna enkante publiko bidez esleituko da, "plegu itxiaren" bidez, administrazio-baldintza zehatzen agiri honetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoarekin bat etorritz.

#### **5.- KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Administrazioarekin kontratuak egin ditzakete, nahiz pertsona naturalek nahiz juridikoei, espainolek nahiz atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean jasota dauden zioetakoren batean sartuta ez badaude.

Administrazioak kontratuak egiten ahalko ditu batera parte hartzen duten lizitzaileekin. Parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez gauzatuko da; bertan, borondatea dagoela batera aurkezteko adierazi, lizitzaile bakoitzaren partaidetzaportzentajea zehaztu eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da, kontratuak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izango dituen kontratua azkendu arte. Horrek ez du inolaz ere galaraziko kobraketa eta ordainketa garrantzitsuetarako beste ahalmen mankomunatu batzuk ematea.

Kontratuan batera parte hartzen duten kontratistak kontratuak sortutako betebeharren erantzule solidario izanen dira.

Inolaz ere ezingo dute kontraturik egin pertsona naturalek nahiz juridikoei, espainolek nahiz atzerritarrek, baldin Udalarekin zorretan badaude eta zorrak ordaintzeko epea amaitu bada (nahiz eta haren gainean banku-abala eratu duten).

#### **6.- BERMEAK**

Bermeak zuzenbidean onar daitezkeen formuletatik edozein erabilita eratuko dira, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Lizitazio-prozesuan parte hartzeko, interesdunak behin-behineko bermea ezarri beharko du, kontratuaren zenbateko osoaren % 2koa izango da.

Behin betiko esleipen-erabakia hartu ondoren, ondasunaren esleipendun ez diren lizitzaileei itzuliko zaie behin-behineko bermea, inolako eskaerarik aurkeztu beharrik izan gabe. Halaber, behin-behineko bermea behin betiko bermea aurkeztu ondoren itzuliko zaio esleipendunari.

Behin betiko bermea esleipen-prezioaren % 4 izango da.

Eskabidea egin ondoren itzuliko da, salerosketa-eskritura formalizatu eta



erregistratu ondoren.

## **7.- ESKAINTZEN AURKEZPENA.-**

Esleipena enkante publikoaren bidez gauzatu da, gutun-azal itxien prozedura baliatuz.

Eskaintzak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Lizitazaileek Etxarri Aranazko Udalaren Erregistro Orokorrean (Nagusia, 10. 31820. Etxarri Aranatz) aurkeztu beharko dituzte euren proposamenak, jendearentzako ordutegian (10:00-14:00) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusten diren bideetatik edozein erabilita.

Proposamenak postaz bidaltzen badira, interesdunak posta-bulegotik bidalketa egin izanaren eguna frogatu beharko du, eta kontratazio-organoari eskaintza bat bidali duela jakinarazi beharko dio. Horretarako, mezu bat bidali beharko du [udala@etxarriaranatz.eus](mailto:udala@etxarriaranatz.eus) helbidera. Mezuan bere burua identifikatu beharko du, eta dokumentazio posta bidez igorri duela jakinaraziko.

Gutun-azalen barruan sartu behar den dokumentazioa honako hau da:

### **7.1. 1. gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.-**

Lizitazio-prozesuaren lehendabiziko gutun-azalak honako dokumentazio administratibo hau izango du:

a) Lizitazailearen erantzukizunpeko adierazpena, 55.1 artikuluan eta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean eskatzen diren aurretiazko betekizunak betetzeari buruzkoa, behar bezala ahaldundutako pertsona batek beteta eta sinatuta, agiri honen I. eranskinaren arabera.

Kaudimena azpikontratazioaren bitartez egiaztatzen bada, lizitazaileak agiri bat aurkeztu beharko du, erakusteko konpromiso formal bat duela azpikontratatuarekin kontratua gauzatzeko. Kasu horretan, denen kaudimena hartuko da kontuan. Halaber, egiaztatu beharko du, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 16. eta 17. artikuluetan ezarritako moduan eta baldintzetan, azpikontrastek badituztela kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak. Proposamena elkarrekin parte hartzen duten lizitazaileek sinatzen badute, taldekide bakoitzak eskatutako aitortpena aurkeztu beharko du.

Enpresa bat baino gehiago aldi baterako elkarrekin bat eratzuz lehiatzen badira, elkarrekin osatzen duen enpresa bakoitzak nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta enpresa guztiek dagokion erantzukizunpeko adierazpena egin beharko dute.

Lizitazaileak jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa eman beharko du.

b) Behin-behineko fidantza utzi izana egiaztatzeko ordezkagiria, Baldintzen Agiri honen 6. klausularekin bat.

d) Elkarrekin parte hartzen duten lizitazaileek izenpetutako proposamenak



aurkezten badira, dokumentu pribatu bat barne sartu beharko da; bertan, batera lehiatzeko borondatea, bakoitzari dagokion parte-hartzearen portzentajea adierazi eta ordezkaturako dituen ordezkari bakar bat izendatuko da, kontratuak sortzen dituen eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izango dituen hura azkendu arte. Idazkia elkarrekin parte hartzen duten enpresa guztiek sinatuko dute, baita aipaturako pertsona ahaldunak ere.

e) Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, maila orotako espainiar epaitegien zein auzitegien jurisdikzioari men egiteko asmoa azalduko duena, kontratua dela-eta zuzenean edo zeharka sor daitezkeen inguruabar guztietarako. Lizitatuazaleari edo hautagaiari dagokion jurisdikzio-foruari uko egiten zaiolako adierazpena ere agertuko da.

Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 55. artikulua aipatzen dituen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeke debekurik ezari buruzko inguruabarrak, eskaintzak aurkezteko azken egunean aurkeztu beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraun beharko dute.

## **7.2. -2. gutun-azala: Proposamen ekonomikoa.-**

2. gutun-azalean proposamen ekonomikoa sartuko da, plegu honen, II. eranskineko ereduari jarraikiz egin beharko dena.

Proposamen ekonomikoa beste eredu bati jarraikiz aurkeztuz gero, berekin ekarriko du lizitatuazalea proposamenak irekitzeko ekitaldian onartua ez izatea.

## **8.- KONTRATAZIO-MAHAIA.**

Kontratazio Mahaiari dagokio proposamenak irekitzea eta Legeak esleitutako gainerako eginkizunak betetzea. Honako hauek osatuko dute:

Lehendakaritza: Maria Saez de Albeniz Bregaña, Etxarri Aranazko alkatea.  
Ordezkoa: Lur Iosu Larraz López, Etxarri Aranazko Udaleko alkateordea.

- Bokala: Silbia Sesma Nazabal, Etxarri Aranazko zinegotzia. Ordezkoa: Naroa Anso Iriarte, Etxarri Aranazko zinegotzia.

- Bokala: Alaitz Iburguren Beloki, Etxarri Aranazko udal arkitektoa. Ordezkoa: izendatzeko.

- Bokala: Lorena Almandoz Mutuberria, Etxarri Aranazko udal kontu-hartzailea.  
Ordezkoa: Maialen López Cambra, Altsasuko udal kontu-hartzailea.

- Bokala eta idazkaria: Miren Pereda Razkin, Etxarri Aranazko udal idazkaria.  
Ordezkoa: Urtzi Nazabal Goñi, Sakanako Mankomunitateko idazkaria.

## **9.- ENKANTEA.-**

### **9.1.- 1. gutun-azala irekitzea.-**

Behin eskaintzak aurkezteko epea amaiturik, Kontratazio-Mahaiak, barneko ekitaldian, 1. gutun-azala aztertu eta irekiko du (dokumentazio administratiboa) eta



pleguaren 7. atalean eskatzen den dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztu duten lizitzaileak onartzea edo kanpo uztea erabakiko du.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2019 Legearen 96. artikularekin bat, aurkezturiko dokumentazioan Mahaiak hutsegiterik atzematen badu, edo zerbait falta dela uste badu, 5 egun naturaleko epea ematen ahalko du, hutsegitea zuzentzeko.

Kasu horretan, lizitzaileak 7. atalean zehaztutako baliabideak erabili beharko ditu dokumentazioa aurkezteko.

Dokumentazioa zuzentzeko epea interesdunak informazioa osatu gabe duela amaitzen bada, prozeduratik kanpo utziko da. Gorabehera hori idatziz jasoko da.

## **9.2.- 2. gutun-azala irekitzea.-**

2. gutun-azala Etxarri Aranazko alkatearen bulegoan irekiko da, jendaurreko ekitaldian. Ekitaldia egiteko eguna eta ordua Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da, eta lizitzaileei jakinaraziko zaie.

Lizitzaile biren edo gehiagoren arteko puntuazioan berdinketa gertatuz gero, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 99. artikuluan ezarritakoa beteko da.

## **10.- BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA**

2. gutun-azala ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak behin-behinean esleituko dio kontratua ekonomikoki onuragarriena den proposamenari. Erabaki hori iragarki-oholean eta Udalaren iragarki-taulan eta Kontratazioaren Atarian argitaratuko da.

## **11.- SESTEOA.-**

Behin-behineko esleipenerako proposamena interesdunei jakinaraziko zaie, eta sesteoa egingo da, betiere honako zehaztapen hauei jarraikiz:

- Postura seiren bat hobetu ahal izango da, enkanterako iragarritako ordutik hasi eta ondoko sei egunetan. Epea seigarren eguneko ordu berean amaituko da.

- Enkantean lizitzailearik izan ez bada ere, legezko ahalmena duen edonork egin ahalko du; betiere, aurrez behin-behineko bermea jarri badu.

- Idatziz nahiz idazkariaren aurrean hitzez egin ahalko da. Edozein modutan ere, idazkariak eginbide bat idatziko du, aurkeztu den eguna eta ordua adieraziko dituen, eta interesdunak sinatu egingo du.

- Sesta ematea amaitu ondoren, horretarako jarritako epea bukatu eta ondoren lau egun baliodun izango dira beste enkante bat egiteko. Toki entitateak esleipenaren proposamenaren hartzaileari bere postura seiren bat hobetua izan dela jakinarazi beharko dio eta behin betiko enkantea noiz eginen den espresuki adierazi.

- Behin betiko enkantea egiteko, egindako hobekuntzatik ateratakoa hartuko da tasazio prezioztat, eta kasuan kasuko iragarkia jarriko iragarki-oholean, hurrengo enkantea zein egun eta ordutan izanen den gutxienez bi egun natural aurretik zehaztuta. Hasierakoaren modu berean egingo da enkantea. Lizitzailearik ez badago, kontratua sesta-emaleari esleidi dakiola proposatuko da.

- Egindako enkantearen akta egingo da, eta haren emaitzak iragarki-taulan



argitaratuko dira.

- Esleipenaren proposamenaren ondorengo hiru egun baliodunetan edonork erreklamazioa egin ahalko du idatziz, lizitatzaille izan gabe ere, lizitazioaren tramitazio akatsen eta, bereziki, lizitatzaillearen gaitasun juridikoaren kontra, eta bere iritziz esleipena egiteko bidezko den ebazpena eman dadila eskatu ahalko du.

Atal honetan ezarri ez den guztiari dagokionez, sesta emateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 229.6 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

## **12.- ENKANTEA HUTSIK.-**

Lehen enkanterako proposamenik aurkeztu ezean edota horietako bakar batek ere baldintza-plegu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badu, enkantea hutsik gelditu dela deklaratu eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 116. artikuluan eta hurrengoetan eta Nafarroako toki ondasunen erregelamendua onesten duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 210. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da.

Kasu horretan, esleipena agiri honen bidez arautuko da, lizitazio-prezioari dagokionez izan ezik.

## **13.- KONTRATUAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA.-**

Kontratazio-organoak egingo du behin betiko esleipena, eta adjudikaziodunari eta gainerako parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

Esleipen ekitaldiaren efikazia etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik aurrera. Esleipen ekitaldia etenda geldituko da, erreklamazio bat jartzen bada kontratazio publikoari buruz, erreklamazio hori ebazten den bitartean.

## **14.- KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratazio-organoak egingo du behin betiko esleipena, eta adjudikaziodunari eta gainerako parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

Kontratua formalizatu aurretik eta esleipen-proposamenaren jakinarazpena egiten denetik 7 eguneko epean, adjudikaziodunak honako dokumentu hauek entregatu beharko ditu:

- i. Lizitatzaillearen nortasuna eta, hala badagokio, proposamenaren sinatzailearen ordezkari eta egiaztatzen duten agiriak, honako hauek:
  - a. Nortasun Agiri Nazionala (edo baliokidea) pertsona fisikoentzat edo enpresaburu indibidualentzat.
  - b. Lizitatzaillea pertsona juridikoa balitz, sozietatea osatzeko eskritura aurkeztu beharko da eta, beharrezkoa balitz, aldaketan dokumentua, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, aplikatu ahal zaion



merkataritza legediarekin bat eskakizun hori exijitu ahal bazaio. Hala izan ezean, jarduteko gaitasuna frogatzeko, eraketaren edo aldaketaren eskritura, estatutuak edo jardunari buruzko erregulazioa jasota duen eraketa egintza aurkeztu beharko da, kasuan kasuko erregistro ofizialekoa.

- c. Eskaintza batera parte hartzen duten lizitatzailleek aurkezten dutenean, lizitatzaille bakoitzak bere nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna egiaztatuko ditu, eskaintza aurkezteko unean aurkeztutako agiri pribatuarekin bat etorritik.
- ii. Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek, horretarako gaitasun nahikoa izango dute.
- iii. Kontratuaren ondoriozko betebeharrak konplitzeko bermea Etxarri Aranazko Udalaren alde utzi izanaren ziurtagiria, 5. klausulan ezarritakoarekin bat.  
Bermeak kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatuko du, eta ez da bertan behera utziko harik eta berme-epaia bukatzen den arte eta kontratua behar bezala betetzen den arte.
- iv. - Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, baita lizitatzailleak zerga betebeharrak dituen Administrazio Publikoen organo eskudunen agiriak ere, horiek eguneratuak dituela egiaztatzen dituztenak.
- v. Gizarte Segurantzaren ordainketak eginda dituela egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.

Kontratua formalizatuko ez balitz edo adjudikaziodunak berari egotz dakizkiokeen arazoengatik eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuko ez balu, kontratazio-organok kontratua bertan behera uztea erabaki ahal izango du, eta Udalaren esku utzitako behin-behineko bermea konfiskatu. Era berean, kalte-ordain osagarriak ordainaraztea erabaki ahal izango du, portzentaje hori gainditzen duen ororentzat.

#### **14.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK:**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratua gauzatzeko sortzen diren gastu guztiak, besteak beste, honako hauek: Hain zuzen ere, honako hauek:

- Esleipenduna subrogatuko da, eskritura publikoa sinatzen den egunean, lurzatiaren titulartasunetik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztietan.

- Esleipendunaren kontura izango dira eskritura publikoa egilesteak eta erregistro-inskripzioa egiteak eragindako gastuak.

- Esleipendunak bere gain hartuko du lurren eskualdaketa zergapetzen duten zergen ordainketa, bai eta esleipen-datatik aurrera lursailen jabetza zergapetzen duten zergen ordainketa ere. Hain zuzen ere, BEZa ordaintzea adjudikaziodunari dagokio, eta horren zenbatekoa kontratuaren prezioarekin batera ordaindu beharko da. Horrekin batera, esleipendunak erakundeen eta partikularren baimenak, lizentziak, agiriak edo beste edozein informazio lortzeak eragindako gastu guztiak ordainduko ditu.



- Beste edozein motatako gastuak, betiere kontratua gauzatzeko beharrezkoak badira.

Betebehar horietakoren bat ez betetzeak kontratua ez burutzea eta fidantza galtzea ekarriko du, bai eta Udalari eragindako kalte-galerak ordaintzea ere.

#### **15.- ORDAINKETA:**

Esleipendunak, salerosketako eskritura publikoa sinatu aurretik, partzelaren truke eskaintako prezio osoa ordainduko du, dagokion BEZa gehituta.

#### **16.- LEHENTASUNEZ EROSTEA ETA ATZERA ESKURATZEA.**

Udalak, lurzati hori besterentzen bada, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea izango du, salerosketa-eskritura sinatzen denetik 5 urteko epean.

Hori dela eta, esleipendunak lurzattia besterendu nahi badu, gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko dio Udalari, modu frogagarrian, eta besterendu nahi den lurzatiaren baldintza guztiak adierazi beharko ditu. Udalak, hilabeteko epe horretan, partzela jakinarazitako baldintzetan erostea edo berariaz erosteari uko egitea aukeratu ahal izango du, edo adierazitako epea aukera hori baliatu gabe igarotzea.

Ondorengo eskuratzailleak subrogatu egingo dira baldintza hauek betetzean, eta berariaz konprometituko dira horretarako dagokion agiri publikoan.

#### **17.- BETEBEHARRAK EZ BETETZEA.-**

Kontratuaren edozein alderdi ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekarriko du berarekin.

Klausula hau benetakoa da eta erabateko eraginkortasuna du hirugarrenen aurrean.

#### **18.- ARAUDI APLIKAGARRIA**

Agiri honetan aurreikusi ez den guztirako, kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen xedapenak eta gainerako garapen-arauak aplikatuko dira. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko eta zuzenbide pribatuko xedapen aplikagarriak aplikatuko dira.

#### **17.- ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Enkantean parte hartzen dutenen (esleipendunak izan ala ez) eta Etxarri Aranatzeko Udalaren artean kontratu hau prestatu eta esleitzeari buruz sortzen diren eztabaidak kontratazio-organoaren aurrean bideratuko dira, eta organo horren ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Aitzitik, adjudikaziodunaren eta Etxarri Aranatzeko Udalaren artean sortzen diren eztabaidak, kontratu honetatik eratorritako gainerako gaiei buruzkoak, kontratu hau betetzeari edo ez betetzeari eta suntsiarazteari buruzkoak, jurisdikzio zibilean bideratuko dira, Prozedura Zibilaren Legearen arabera dagozkion akzioak erabiliz.





## 18.- ERREKURTSOAK

Plegu honen kontra eta hura betetzeko ematen diren ebazpen guztien kontra, errekurtsio hauek para daitezke:

- Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, BI HILABETEKO epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Etxarri Aranatzen, 2025eko martxoaren 14ean.

Maria Saez de Albeniz  
Bregaña

Alkatea

*Elektronikoki sinatutako dokumentua/documento firmado electrónicamente*



**I. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA**

Izena:..... NAN:.....  
Bizitokia: ..... Helbidea:.....Helbide  
elektronikoa:.....Telefono zenbakia:.....Honako  
entitate hau ordezkatuz eta haren izenean: .....  
Helbidea: ..... IFZ:.....

**HONAKOA ADIERAZTEN DUT, NIRE ARDURAPEAN:**

**LEHENA:** Parte hartu nahi duela ETXARRI ARANAZKO 01/811 LURSAILAREN ENKANTE PUBLIKOAN.

**BIGARRENA:** Apirilaren 13ko 2/2018 Legearen 55.1 artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eta zehazki, honako hauek:

- Nortasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa dudala, eta sinatzailea nire ordezkarria dela.
- Kontratatzeko debeku egoeran ez nagoela, eta indarreko legediak ezarritako lan-eta zerga-betebeharren betetzean egunean nagoela.
- Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko gainerako lege baldintzak betetzen ditudala, bai eta kontratazio-pleguetan ezarritakoak ere.
- Hona jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:  
.....
- Beste entitate batzuen idatzizko konpromisoa dudala bitartekoak atxikitzeaz edo baliabideak erabiltzeaz, hala denean.

**HIRUGARRENA:** Konpromisoa hartzen dudala, esleipen-hartzaile aukeratuz gero edo hala eskatzen zaidan kasuetan, adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren dokumentuak baditudala eta baliozkoak direla egiaztatzeko.

....., 20...(e)ko.....(a)ren.....(e)an

Lizitatzaiaren sinadura



**II. ERANSKINA ESKAINTZA EKONOMIKOA**

Izena:..... NAN:.....

Bizitokia: ..... Helbide elektronikoa:  
.....Telefonoa:.....

- Nire izenean
- .....-ren izenean (IFZ zk.....)

**AZALTZEN DUT:**

- Behin aipatutako kontratua gauzatzeko egindako plegu administratiboa ikusita, kontratua baldintza horiei hertsiki lotuz egiteko konpromisoa hartzen dut. Hona hemen eskaintza:

.....(ze  
nbakitan)

.....(letratan)

Eskaintza ekonomikoa egiteko kontuan hartu ditugu indarreko xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak honako hauei dagokienez: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak, desgaituen laneratze eta gizarteratzea.

....., 20...(e)ko.....(a)ren.....(e)an

Data. Lizitatzaillearen sinadura.

